



ANBOTOKO AITZA

(Foto y texto de «Pakol»).

ANBOTOKO AITZA

Bizkaitarra degu arkaitz-mendi dotore au. Baña bai Guipuzkoa ta Arabako sail aundietatik ere oso agirian arkitzen da Anbotoko aitza.

Bere biran diran erri askoan dakite bertako leiza zuloaren berri, alako sorgiñ bat zala ta etzala. Diñotenez, apaindua bezin gaiztoa izan bear zuan andre onek. (Au ere emakumea zalakotzat zeuden garai ertan «ikusi» zutenak).

Entzutea degunez ba, mendi tontor batetik bestera ibilli omen zan, ego aizea bezela, beti sutan eta iñoiz arregabe, bere garrak gau erdiko illunean ibarrak eta basoak argitzen zitularik.

Ikazgin eta artzai bati baño geiagori agertu zizkion bere zitakeriak, asmo txarrenak beti berarekin baitzituan. Andikoan, oso ederki egosten ari ziran txondorrek erre ta kixkaldu; emendikoan, ardi ta arkumeak eraman.

Gabek oibillerak zituan gogozko eta egunez, eguzkiaren beldur, len esan degun Anbotoko leiza zuloan gordetzen zan. Leiza onen aboa arkaitzea nzintzilika dagoala esan liteke, eta ez da erreza bertaratzea. Etzuan ba gaizkille batentzi gorde leku txarra aukeratu.

Baña bada urte mordoxka bat Anbotoko andrearen berririk iñork ematen ez duala. ¿Zer gertatu ote zaio? Ez da au batere arritzekoa: zaartu egingo zan ura ere, zaartzekoa baldin bazan.

Edo ¿kalera jexia ote degu bizi izatera? Ez genuke au ere gogor ukatuko, sorgiñik ikusten ezpadegu ere, oraindik ainbat sorginkeri ikusten ari qeranok. Esan genezake zerbait onetzaz.

Dana dalakoa, Zabalandiko zelaian etxe txiki oiek jaso dituzten mendigoizaleak ez dute akelarreak ospatutzeko tokirik uzten, eta nai ta nai ez, sorgiñ billera aiek beste alde batera eraman bear.

Mendigoizale auk bezela jokatu bear genuke euskaldun guziok: alkartuaz, bilduaz, erdel-sorkinkerieri tokirik eman gabe. Baña zoritxarrez, banatuta qabilta qeienok,